



ARANTZAKO UDALA

EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Organoa: Udalbatza

Deialdia: Lehenengoa

Bilera mota: Ez-ohikoa

Eguna: 2024.01.11

Ordua: 19:00

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia

Bertaratuak:

- ALKATEA: Saturnino Larralde Ibarrola, EH Bildu.
- Leire Mitxelena Gamio, EH Bildu.
- Ana Maeztu Villanueva, EH Bildu.
- Andoni Mitxelena Danboriena, EH Bildu.
- Itziar Arotzena Bergara, EH Bildu.
- Julen Oskoz Elizondo, EH Bildu.

Bertaratu ez direnak:

- Igor Ugalde Salazar, EH Bildu.

Idazkaria: Nagore Madariaga Iriarte

AZTERGAIK:

1. Udala eratzeko aktaren onespina.
2. Osoko bilkuretarako deialdien maiztasuna.
3. Informazio batzordeak eratu eta osatzea.
4. Udalen eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko udal ordezkarien izendapenak.
5. Alkateordeen izendapenen berri ematea.
6. Ezkontza zibilak egiteko alkate eskurantzak eskuordetzearen berri ematea.
7. Alkate eta zinegotzien lansariak finkatzea.
8. 1. poligonoko 301. eta 302. lurzatiek katastroko oinarritzko datuen aldaketa onespina.
9. Bortzirietako Euskara Mankomunitatea eta Gizarte Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea desegiteko, Hiri Hondakinen Zabor Mankomunitatea eraldatu eta berregituratzeko eta Bortzirietako Berdintasun Zerbitzuari buruzko lankidetzaren hitzarmena desegiteko hasierako onespina.
10. 2024ko zerga, tasa eta prezio publikoen onespina.
11. 2023ko 7 eta 8 aurrekontu aldaketen onespina.
12. Amekurrun eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamenduen salmenta egiteko enkantea arautuko duen plegu arautzaileen eta prozedura abiaraztearen onespina.
13. 6. exekuzio unitatean (UE6) etxebizitza babestuen gutxieneko estandarren eskakizuna kentzea.
14. 6. exekuzio unitatearen (5. poligonoko 558. eta 850. lurzatiak) aldaketa egituratzailea. Behin behineko onespina.
15. 5. exekuzio unitatearen (5. poligonoko 350. lurzatiak) aldaketa egituratzailea. Behin behineko onespina.
16. Alkate Ebazpenak.
17. Galderak eta eskaerak.



ARANTZAKO UDALA

1. UDALA ERATZEKO AKTAREN ONESPENA.

Udala eratzeko 2023/12/16ko ez-ohiko osoko bilkurako akta AHO BATEZ ONETSI da.

2. OSOKO BILKURETARAKO DEIALDIEN MAIZTASUNA.

Idazkariak orain arte ohiko osoko bilkurak hilerro, egiten direla azaldu du. Dena dela, nahi izanez gero, hasiera batean zehazturiko eguna aldatu daitekeela adierazi du.

Osoko bilkurak, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Udaleko ohiko osoko bilkurak hilerro, lehenengo ortziralean, arratsaldeko 16:30ean egitea.

3. INFORMAZIO BATZORDEAK ERATU ETA OSATZEA.

Alkateak informazio batzordeak eratu eta osatu ditu bakoitzaren ondoan adierazitako zinegotziekin:

- HIRIGINTZA: Andoni Mitxelena Danboriena.
- MENDIA eta AUZOLANAK: Igor Ugalde Salazar.
- KULTURA eta KIROLAK: Julen Oskoz Elizondo.
- OGASUNA: Saturnino Larralde Ibarrola.
- KOMUNIKAZIOA: Ana Maeztu Villanueva.
- HEZKUNTZA: Itziar Arotzena Bergara.
- INGURUGIROA, BASERRIGINTZA eta TURISMOA: Igor Ugalde Salazar.
- EUSKARA eta JENDARTEA: Leire Mitxelena Gamio.
- BERDINTASUNA: Ana Maeztu Villanueva.

4. UDALEN ESKUMENEAN DAUDEN KIDE ANITZEKO ORGANOETARA JOAN BEHARREKO UDAL ORDEZKARIEN IZENDAPENAK.

Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko udalaren ordezkariak honako zinegotzi hauek IZENDATZEN DIRA:

- BORTZIRIETAKO HIRI HONDAKINEN MANKOMUNITATEA: Saturnino Larralde Ibarrola. Ordezkoa, Itziar Arotzena Bergara.
- BORTZIRIETAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUKO MANKOMUNITATEA: Itziar Arotzena Bergara.
- BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA: Leire Mitxelena Gamio. Ordezkoa, Itziar Arotzena Bergara
- BORTZIRIETAKO BERDINTASUN ZERBITZUA: Ana Maeztu Villanueva.
- BORTZIRIETAKO OSASUN KONTSEILUA: Leire Mitxelena Gamio.
- CEDERNA-GARALUR ELKARTEA: Igor Ugalde Salazar.
- ARANTZAKO ESKOLA KONTSEILUA: Itziar Arotzena Bergara.



ARANTZAKO UDALA

- NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA: Saturnino Larralde Ibarrola.
- ANIMSA: Andoni Mitxelena Danboriena.
- UEMA: Leire Mitxelena Gamio. Ordezkoa, Ana Maeztu Villanueva.
- UDALBILTZA: Julen Oskoz Elizondo. Ordezkoa, Ana Maeztu Villanueva.
- ESKUALDEKO ELIKAGAIEN DINAMIZAZIO MAHAIA: Leire Mitxelena Gamio.
- ARANTZAKO EHIZA-BARRUTI BATZORDE PARITARIOA: Igor Ugalde Salazar, Julen Oskoz Elizondo, Itziar Arotzena Bergara, Andoni Mitxelena Danboriena eta Saturnino Larralde Ibarrola.

5. ALKATEORDEEN IZENDAPENEN BERRI EMATEA.

Idazkariak azaldu du 2023ko abenduaren 27ko 172/2023 Alkate Ebazpen bidez Leire Mitxelena Gamio eta Igor Ugalde Salazar, hurrenez hurren, lehen eta bigarren alkateorde izendatu dituela alkateak.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ BERRETSI DUTE.

6. EZKONTZA ZIBILAK EGITEKO ALKATE ESKURANTZAK ESKUORDETZEAREN BERRI EMATEA.

Idazkariak azaldu du 2023ko abenduaren 27ko 171/2023 Alkate Ebazpen bidez udaleko zinegotzi guztiei ezkontza zibilak egiteko ahalmena eskuordetu duela alkateak.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ BERRETSI DUTE.

7. ALKATE ETA ZINEGOTZIEN LANSARIAK FINKATZEA.

Idazkari-kontuhartzaileak adierazi du, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 56. artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako toki korporazioek beren aurrekontuetan kontsignatu ditzaketela beren karguetan jarduteagatik beren kideei ordainsariak eta kalte-ordainak ordaintzeko zenbatekoak.

Era berean, adierazi du aipatutako ordainsariak eta kalte-ordainak finkatzeko prozedura eta baldintzak Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75., 75bis eta 75ter artikuluetan eta Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 13. artikuluan ezarritakoak direla. Bertzalde, Sektore Publikoaren eremuko ordainsarien arloko presako neurriak onartzen dituen abenduaren 21eko 24/2018 Errege Lege Dekretuaren 18. artikulua toki-korporazioetako kideen ordainsari-araubidea ezartzen du.

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DUTE:

1.- Gai-zerrendako puntu honen eztabaida Arantzako Udalaren hurrengo osoko bilkurara atzeratzea.



ARANTZAKO UDALA

8. 1. POLIGONOKO 301. ETA 302. LURZATIEN KATASTROKO OINARRIZKO DATUEN ALDAKETA ONESPENA.

Idazkariak 1. poligonoko 295. lurzatiaren katastroko egoera zein den azaldu du. Kasu honetan Margarita Ariztegi zenaren oinordekoekin irazlaien hitzarmena sinatzekoa da eta, egoera hau erregulatu ahal izateko, aipaturiko lurzattia bitan banatu beharra da: 1. poligonoko 301. lurzattia (Arantzako herri-lurrarena) eta 1. poligonoko 302. Lurzattia (Fermin Echeverria Alzurirena, egungo jabea). Era berean, Nafarroako Gobernuko Herri-Lurren Ataleko 2023ko irailaren 28ko txostena laburki azaldu du.

Aldaketa hau Nafarroako Lurralde Aberastasunaren eta Katastroen Erregistroari buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen (12/2006 FL) 28. artikuluan eta Nafarroako Lurralde Aberastasunaren eta Katastroen Erregistroari buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legea garatzen duen Erregelamendua onartzen duen irailaren 22ko 100/2008 Foru Dekretuaren 31. artikuluko 1.a) puntuan xedaturiko prozedurari jarraiki egin beharko litzateke. Halaber, 12/2006 FLko 28.3. artikuluan xedaturikoaren arabera:

"Aldaketa grafiko batek edo titulartasunaren aldaketa batek eragina baldin badu Lurralde Aberastasunaren Erregistroan herri ondasun gisa inskribatutako lurzatietan, beharrezkoa izanen da titular moduan ageri den toki entitateko gobernu organo gorenak hartutako erabakia, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren barruan herri ondasunak aldezteko ahalmena duen unitate organikoaren aldeko txostena ere."

Osoko bilkurara bertaratutako kideek, informazioa adituta, AHO BATEZ, LEGEZKO KIDE KOPURUAREN GEHIENGO OSOKOA IZANIK, ERABAKI DUTE:

- 1.- 1. poligonoko 301. eta 302. lurzatiaren katastroko oinarrizko datuak aldatzea. Horrela bada, lurzati horien U.T.M. koordenatuak eta muga-lerroa espedientean dauden planoetan adierazten den bezala trazatuko dira.
- 2.- Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren eta Ondare Zergen Zerbitzuari dagokion katastro aldaketa egiteko eskatzea.
- 3.- Akordio hau Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren eta Ondare Zergen Zerbitzuari jakinaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

9. BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEA ETA GIZARTE ZERBITZU OROKORREN MANKOMUNITATEA DESEGITEKO, HIRI HONDAKINEN ZABOR MANKOMUNITATEA ERALDATU ETA BERREGITURATZEKO ETA BORTZIRIETAKO BERDINTASUN ZERBITZUARI BURUZKO LANKIDETZA HITZARMENA DESEGITEKO HASIERAKO ONESPENA.

Ikusirik zer egitura instituzional dagoen indarrean Bortzirietako Udalen arteko lankidetzarako, zeinak barne hartzen baititu Euskara Mankomunitateak, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak eta Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitateak, bai eta 2021eko maiatzaren 28an berdintasunaren arloan formalizatutako administrazioen arteko toki-arteko lankidetzaren hitzarmena ere.



ARANTZAKO UDALA

Tokiarteko lankidetzarako erakunde egitura horren inguruan egindako aldeztutako azterlanak edo behaketak ikusita, amaitu egin da egitura horren bidez ematen diren zerbitzu publikoak integrazteko interes publikoa eta bideragarritasuna, eta, horretarako, Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitate bat egituratu da.

Aldeztutako azterlan edo behaketa horietatik ondorioztatzen denez, Euskara, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak, Hiri Hondakin Solidoen Kudeaketa eta Berdintasun gaietan garatzen eta ematen diren jarduerak eta lankidetzaren berdintasun arloan integrazteko prozesua gauzatzeko eta artikulatzeko irtenbiderik hoberena honako hau da:

- Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea eraldatzea eta berregituratzea, haren jarduera-eremua eta xedea zabaltzeko. Bertan, honako hauek sartuko dira: euskara-zerbitzu mankomunatuak, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta berdintasuna. Horretarako, erakundearen eta estatutuen egitura aldatuko da eta Bortzirietako Zerbitzuen Mankomunitate bihurtuko da.
- Aldi berean, Euskara eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak desegitea eta likidatzea, eta Berdintasunaren arloko hitzarmena suntsiaraztea.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 49. artikulua, Foru Lege beraren 50. artikuluekin lotuta, eta, bereziki, 50.3 artikulua araututakoa ikusita, bai eta artikulua horietan araututako arauak ere, mankomunitateen estatutuak aldatzeko eta desegiteko kasuetarako.

Bortzirietako Udalen artean Euskararen, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen, Hiri Hondakin Solidoen Kudeaketaren eta Berdintasunaren arloko lankidetzaren arloetan garatzen eta ematen diren jarduerak eta zerbitzuak integrazteko prozesuaren Jarraipen Batzorde bat eratu ahal izateko interesa kontuan hartuta.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- Bortzirietako Hiri Hondakinak Kudeatzeko Mankomunitatea eraldatzeko eta berregituratzeko prozedurak hastea onartzea, haren jarduera eremua eta xedea zabaltzeko. Horretarako, honako hauek sartuko dira: euskararen zerbitzu mankomunatuak, oinarrizko gizarte-zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta berdintasuna. Horretarako, mankomunitatearen egitura instituzionala eta estatutarioa aldatuko dira, Bortzirietako Zerbitzu Mankomunitatea bilakatuko da, eta, aldi berean, Euskara eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak desegiteko eta likidatzeko prozedurak abiaraziko dira, eta berdintasun-arloko hitzarmena suntsiaraziko da.

2.- Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitateari, Euskara Mankomunitateari eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako Mankomunitateari eraldaketa, berregituraketa eta desegite proiektuak idazteko eskatzea, kasu bakoitzean, bai eta dagozkion administrazio espedienteak izapidetzeko ere, mankomunitatutako udalek behin betiko onartu arte.

3.- Gainerako Udalekin batera, berdintasunaren arloko hitzarmena suntsiarazteko memoria idaztea, eta hura izapidetzea eta onartzea, formalizazio arauen arabera.

4.- Saturnino Larralde Ibarrola, Arantzako Udaleko alkatea, izendatzea Euskararen, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen, Hiri Hondakin Solidoen Kudeaketaren eta Berdintasun arloan garatzen eta ematen diren



ARANTZAKO UDALA

jarduera eta zerbitzuen integrazio prozesuaren Jarraipen Batzordean haren ordezkari, Bortziretako Udalekin batera.

10. 2024KO ZERGA, TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ONESPENA.

Idazkariak 2023ko ordenantza fiskaletako tasen, prezio publikoen eta karga-tasen egungo egoera azaldu du.

Era berean, aipatu du tasak eta prezio publikoak igotzea edo ez beranduago onartu daitekeen arren, 2024ko karga-tasak lehenbailehen onartu beharko liratekeela, nahitaezko zergak direlako eta zerga horietako aunitz urteko ordainarazpenekoak direlako. Hori guztia Nafarroako Ogasunei buruzko Foru Legearen 13.5 artikulua erabiltzeko eraberrazteraz xedaturikoaren arabera.

Horrela bada, osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ, ERABAKI DU:

1.- 2024ko ekitaldirako honako karga-tasa hauek onartzea:

- Lurralde-ekarpena: % 0,25.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga: 1,3.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak ezarritakoa.
- Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga: % 4.
- Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga:
 - o Zerga-oinarria: Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 175. artikuluan ezarritako gehienezko koefizienteak.
 - o Karga-tipoa: % 8.

2.- Gainerako tasa eta prezio publikoak aitzineko ekitaldian bezala mantentzea.

3.- Erabaki hau 2024ko urtarrilaren 1ean sartzea indarrean eta indarrean jarraitzea hura indargabetzea edo aldatzea erabaki arte.

4.- Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Arantzako Udaleko iragarki-taulan argitaratzea.



ARANTZAKO UDALA

11. 2023KO 7 ETA 8 AURREKONTU ALDAKETEN ONESPENA.

Idazkariak 7 eta 8/2023 aurrekontu aurrekontuaren aldaketa egin ahal izateko, 2024ko urtarrilaren 8ko idazkari-kontuhartzailaren txostenean xedaturikoa azaldu du.

7/2023 ALDAKETA: KREDITU GEHIKUNTZA (AFEKTATUTAKO BALIABIDEEN GERAKIN LIKIDOTIK)

SORTUTAKO GASTUAK (kreditua gehituko zaizkion aurrekontu aplikazioak)		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 1533 6190002	KARRIKEN MOLDAKETAK	1.421,68 €
GUZTIRA		1.421,68 €
FINANTZAZIOA		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 8701000	AFEKTATUTAKO BALIABIDEN DIRUZAINZAKO GERAKINA	1.421,68 €
GUZTIRA		1.421,68 €

8/2023 ALDAKETA: DIRU-SARREREN KREDITUAK SORTZEA

SORTUTAKO GASTUAK (kreditua gehituko zaizkion aurrekontu aplikazioak)		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 3232 4800002	EZ GARRAIATUEN JANGELA DIRULAGUNTZA	9.825,14 €
GUZTIRA		9.825,14 €
FINANTZAZIOA		
Aurrekontu aplikazioa	Izendapena	Zenbatekoa
1 4503001	HEZKUNTZAKO JANGELA DIRULAGUNTZA	9.825,14 €
GUZTIRA		9.825,14 €

Horrela bada, osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ, ERABAKI DU:

- 1.- 7 eta 8/2023 aurrekontu aldaketak onartzea.
- 2.- Aipaturiko aurrekontu aldaketen akordioa udaleko iragarki taulan argitaratzea 15 egun NATURALETAN bizilagun eta interesdunek hala deritzoten erreklamazio edo alegazioak aurkez ditzaten.
- 3.- Jendaurreko epean erreklamazio edo alegaziorik aurkezten ez bada, behin betikoa egingen da aurrekontu aldaketa.



ARANTZAKO UDALA

12. AMEKURRUN ETA SORAETA PARAJEETAN OIHAN APROBETXAMENDUAREN SALMENTA EGITEKO ENKANTEA ARAUTUKO DUEN PLEGU ARAUTZAILEEN ETA PROZEDURA ABIARAZTEAREN ONESPENA.

Amekurrun eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamenduaren salmenta egiteko enkantea arautuko duen plegu arautzaile eta teknikoak azaldu ditu idazkariak.

Amekurrun eta Soraeta parajeetako oihan aprobetxamenduaren salmenta 1. Lote bezala aterako da enkantera, prezioa hau izanik:

- 1. LOTEA: 70.423,37 €, BEZa kanpo.

Adierazitako oihan aprobetxamendu salmentaren enkantea egiteko Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legeko 143 eta 166 artikuluetan xedaturiko prozedura jarraitu beharra da. Halaber, Nafarroako Toki Araubidea Eguneratzeko urriaren 29ko 11/2004 Foru Legearen Bortzgarren Xedapen Gehigarrian eta Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 88. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, enkantea Nafarroako Kontratazio Atarian eta udaleko iragarki taulan argitaratu daiteke.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ, LEGEZKO KIDE KOPURUAREN GEHIENGO OSOA IZANIK, ERABAKI DU:

1.- Amekurrun eta Soraeta parajeetan oihan aprobetxamenduaren salmenta egiteko enkantea arautuko duen plegu arautzaileak onestea.

2.- Aipaturiko oihan aprobetxamendu salmenta enkantearen plegu arautzaileak eta plegu teknikoak Nafarroako Kontratazio Atarian eta udaletxeko iragarki taulan argitaratzea, 15 egun baliodunetz, interesdunek euren eskaintzak aurkez ditzaten.

13. 6. EXEKUZIO UNITATEAN (UE6) ETXEBIZITZA BABESTUAREN GUTXIENEN ESTANDARRAREN ESKAKIZUNA KENTZEA.

Idazkariak azaldu du 2022ko abenduaren 22ko osoko bilkura arruntan hasierako onespena eman zitzaiola Jose Antonio Bereau Maciciorrek eta Margarita Vergara Vergarak sustaturiko 6. exekuzio unitatean (UE6) (5. poligonoko 558. eta 850. lurzatietan) Udal Planeko Arau Subsidiarioaren aldaketa egituratzaileari. Horrela bada, 2022ko abenduaren 27an aipaturiko espedienteak Nafarroako Gobernuko Hirigintza Atalera helarazi zen, dagokion txostena egin zezan, hori guztia Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 71.9. artikuluan xedaturikoa betez.

2023ko apirilaren 17an Nafarroako Gobernuko Hirigintza Ataleko txostena jaso zen eta honen 4.2. puntuan honako hau dio:



ARANTZAKO UDALA

"54 artikulua zehaztapen berria Etxebizitza babestua erreserbatzeko:

Justifikazio-atal bat erantsiko da, Nafarroako Foru Komunitatean etxebizitza babestu eta eskuragarrien parke bat sustatzeko uztailaren 1eko 20/2022 Foru Legearen bidez gehitutako LFOTUren indarreko hirigintza-legeriaren 54. artikulua 1.c datz-zatia betetzen dela egiaztatzeko: (...) Horretarako, agiri teknikoaren justifikazioaz gain, Udalak osoko bilkuraren erabakiaren puntu gisa sartu beharko du TFBLTBren 54. artikulua Arantzako udalerrirako aplikatzearen ondoriozko erreserbaren murrizketa edo ezabapena, proposatutako bizitegi-ahalmenaren gehikuntzetan.

Horri dagokionez, idazkariak azaldu du 2020ko abenduaren 9an bando bidez Arantzako Udal Planak irauten duen bitartean Babes Ofizialeko Etxebizitza eskakizunak biltzeko inkesta egin zela. Inkesta horretan ez ziren izen-ematerik egon. Beraz, Etxebizitza Zerbitzuko zuzendariaren otsailaren 9ko 20/2021 Ebazpenaren bidez S1 Sektorean etxebizitza babestuaren erreserba ezabatzea baimendu zuen.

Horrela bada, idazkariak adierazi du epe motzean etxebizitza babestuaren eskakizun falta egon dela Arantzako Udalan.

Azkenik, idazkariak Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 54.1.c) artikuluan xedaturikoa aipatu du:

"c) Planeamenduen aurreikuspenak kontuan harturik 2.000 biztanle baino gutxiagoko populazioa daukaten udalerrietan: urbanizazio berriko jardueretan eta urbanizazio berritzeko edo birmoldatzekoetan aurreikusita dagoen bizitegi-ahalmen berriaren %20. Baldin eta etxebizitza-kopuruaren gorakada 25ekoa edo gutxiagokoa izanzen balitz, udalek zilegi izanzen lukete etxebizitza babestuaren gutxieneko estandarrari buruzko baldintza bigundu edo ezabatzea, Osoko Bilkuraren gehiengo soilez harturiko erabakiaren bitartez."

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ ERABAKI DU:

1.- UE 6 unitatean etxebizitza babestuaren gutxieneko estandarraren eskakizuna ezabatzea, hori guztia Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 54.1.c) artikuluan xedaturikoa betez.

2.- Akordio hau sustatzaileei jakinaraztea, beraien ezaguera eta ondorioetarako.

14. 6. EXEKUZIO UNITATEAREN (5. POLIGONOKO 558. ETA 850. LURZATIAK) ALDAKETA EGITURATZAILEA. BEHIN BEHINEKO ONESPENA.

Idazkariak Jose Antonio Bereau Maciciorrek eta Margarita Vergara Vergarak sustaturiko 6. Exekuzio Unitatearen (5. poligonoko 558 eta 850. lurzatiak) aldaketa egituratzaileari behin behineko onespena emateko urtarilaren 8ko txosten juridikoan xedaturikoa azaldu du.

Horrela bada, idazkariak adierazi du aldaketari behin behineko onespena emateko Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 71. artikuluko 11. eta hurrengo puntuetan xedaturikoaren arabera izapidetu beharra dela.



ARANTZAKO UDALA

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ, LEGEZKO KIDE KOPURUAREN GEHIENGO OSOA IZANIK, ERABAKI DU:

1.- Jose Antonio Bereau Maciciorrek eta Margarita Vergara Vergarak sustaturiko 6. Exekuzio Unitatearen (5. poligonoko 558 eta 850. lurzatiak) aldaketa egituratzaileari behin behineko onespena ematea.

2.- Espediente osoa Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren arloko eskumenak dituen departamentuari igortzea, behin betiko onar dezan, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.2.d) eta 71.12 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

15. 5. EXEKUZIO UNITATEAREN (5. POLIGONOKO 350. LURZATIA) ALDAKETA EGITURATZAILEA. BEHIN BEHINEKO ONESPENA.

Idazkariak Silvia Tellechea Iraolak eta Iñaki Etxeberria Aranazek sustaturiko 5. Exekuzio Unitatearen (5. poligonoko 350. lurzattia) aldaketa egituratzaileari behin behineko onespena emateko urtarrilaren 9ko txosten juridikoan xedaturikoa azaldu du.

Horrela bada, idazkariak adierazi du aldaketari behin behineko onespena emateko Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 71. artikuluko 11. eta hurrengo puntuetan xedaturikoaren arabera izapidetu beharra dela.

Osoko bilkurak, informazioa adituta, AHO BATEZ, LEGEZKO KIDE KOPURUAREN GEHIENGO OSOA IZANIK, ERABAKI DU:

1.- Silvia Tellechea Iraolak eta Iñaki Etxeberria Aranazek sustaturiko 5. Exekuzio Unitatearen (5. poligonoko 350. lurzattia) aldaketa egituratzaileari behin behineko onespena ematea.

2.- Espediente osoa Nafarroako Gobernuko Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren arloko eskumenak dituen departamentuari igortzea, behin betiko onar dezan, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 77.2.d) eta 71.12 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

16. ALKATEAREN EBAZPENAK.

2023ko 161etik 173ra eta 2024ko 1etik 4ra Alkate Ebazpenak azaldu eta AHO BATEZ BERRETSI EGIN DIRA.

17. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira egiten.



ARANTZAKO UDALA

Bertze aztergairik izan gabe, 20:00ak direnean, jarduneko alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

ALKATEA,

2024.02.2

1 11:38:50

+01'00'

Saturnino Larralde Ibarrola

Ziurtatzen dut

IDAZKARIA,

Data:

2024.02.21

11:38:38 +01'00'

Nagore Madariaga Iriarte

